

## Josepha Landaburu Lopez de Aretxaga



**Udalerria:** Gasteiz (Araba)

**Lanbidea:** Ostalaria

Josepha Landaburu Lopez de Aretxaga XVIII. mendearen erdialdetik aurrera behintzat, gobernatu zuen Solas Etxea edo hiriko kafetegia, Hedegile kaleko bigarren etxesailean zegoena.

Pedro Regalado Olabe Gamarrarekin ezkondu zen 1725ean. Solas Etxeetan edariak eskaintzen ziren, kafea edo ardoa, karta jokoan, xakean, txanketean edo billarrean aritzen zen jendea, eta zer irakurri ere eskaintzen zen, egunkariak edota kazetak. Lagunarte eta kultura lekuak ziren, gai desberdinenak lantzen zirenak, eta hiriko azken albisteen edota edo hiriburutik iristen zirenen berri izan zitekeen bertan.

Iturria: [wikipedia](https://en.wikipedia.org/wiki/Josepha_Landaburu_Lopez_de_Aretxaga)

